# GORABIDE

Nº 271 Zk.
2018ko EKAINA
JUNIO DE 2018

DISCAPACIDAD INTELECTUAL - BIZKAIA - ADIMEN DESGAITASUNA

Calidad plena


INFORMACIÓN BBK SAIOA GORABIDE INFORMAZIOA

**Un servicio para todas las familias**
**Familia guztientzako zerbitzua**
pg. 4 or.



**Día del Tercer Sector Social**
**Hirugarren Sektoreko Eguna**
pg. 7 or.



**A San Mamés con la Diputación**
**San Mamesera Aldundiarekin**
pg. 8 or.



# Familietatik familientzako sei proposamen

*Gure familia-partaidetzari buruzko hausnarketa-taldeak hainbat ekimen planteatu ditu prestakuntza, harremana eta elkarlaguntza eskaintza hobetzeko*

# Seis propuestas de familias para familias

*Nuestro grupo de reflexión sobre participación familiar ha planteado una serie de iniciativas para mejorar la oferta formativa, relacional y de apoyo mutuo*



## La Asamblea de Socias y Socios aprueba la gestión del año 2017 y la planificación para 2018 (pg. 5)

## Bazkideen Batzarrak 2017ko kudeaketa eta 2018rako planifikazioa onartu ditu (5. or.)


GORABIDE

**ASOCIACIÓN VIZCAINA EN FAVOR DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD INTELECTUAL**
c/ Licenciado Poza nº 14, 2ª - 48011 Bilbao | Teléfono: 94 443 12 10 | gorabide@gorabide.com
gorabide.com | facebook.com/Gorabide | twitter.com/gorabide



Colabora
Laguntzen du
Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

# Seis propuestas de familias para familias

***Nuestro grupo de reflexión sobre participación familiar describe el proceso seguido para plantear iniciativas que mejoren la oferta formativa, relacional y de apoyo mutuo***

*¿Quién mejor que una familia para entender y apoyar a otra cuando comparten preocupaciones, inquietudes, expectativas...? La idea parece fácil de llevar a la práctica, pero no nos lo parecía en septiembre de 2017, cuando ocho mujeres, familiares de personas con discapacidad intelectual, fuimos convocadas por la responsable de Intervención Familiar de Gorabide a una reunión en la que hablamos de los fundamentos de la asociación, esas raíces bien asentadas en el movimiento familiar. Había que recuperar aquel espíritu, conseguir que las familias volviéramos a ser también parte del motor y empuje.*

*Las reuniones se sucedieron, tuvimos 'deberes' para hacer en casa, contamos con la colaboración de personas expertas... y dos ideas fueron tomando fuerza: "Las familias tenemos que sentir la asociación como nuestra" y las propuestas deben ser "de familia a familia". Fuimos emocionándonos con el proyecto; se notaba en las miradas, en las intervenciones, en las risas… y también en los enfados, escasos, pero presentes cuando algo se torcía.*

*Durante algún tiempo, un poco inocentes, pensábamos que nuestra tarea consistía en generar ideas que luego Gorabide pondría en marcha. Así que, cuando escuchamos que era hora de formar grupos en los que nosotras, las familias, seríamos co-dinamizadoras, pusimos cara de sorpresa y también de pánico. ¿Nosotras liderar un grupo? No somos capaces... ¡Si solo somos familias! Y fue en ese momento cuando entendimos por qué estábamos allí. Porque nos lo habían dicho muy claro desde el inicio: "de familias a familias". Éramos el motor y había que arrancar.*

*A pesar de ese pequeño pánico inicial, ninguna ha abandonado este proyecto y hemos conformado pequeños grupos de trabajo para poner en marcha seis propuestas de familias para familias:*

1. *Crear un nuevo grupo de apoyo mutuo entre familiares de personas con discapacidad intelectual ligera o inteligencia límite.*
2. *Formar un grupo de familiares para acoger a nuevas familias, desde la calidez que aporta compartir sentimientos y problemas.*
3. *Organizar un encuentro de hermanos y hermanas con sus parejas y sus familiares con discapacidad intelectual.*
4. *Un taller de juegos para toda la familia, que potencie y favorezca las relaciones entre familiares.*
5. *Al menos dos actividades al año para hacer en familia; algo tan sencillo como compartir una merienda, una charla…*
6. *Reformular la oferta de charlas, talleres, etc. partiendo de intereses reales de las familias.*

*A estas alturas del proyecto, con las ilusiones puestas en lo más alto, casi han desaparecido los miedos iniciales. Ya nadie se pregunta si será capaz de dinamizar un grupo. Todas tenemos claro que solo tenemos que ser nosotras mismas, familiares de una persona con discapacidad intelectual que apoyan a otras familias en circunstancias similares. De familia a familia, porque en Gorabide cada familia cuenta.*



# Familietatik familientzako sei proposamen

***Gure familia-partaidetzari buruzko hausnarketa-taldeak prestakuntza, harremana eta elkarlaguntza eskaintza hobetzeko ekimenak planteatzeko prozesua azaldu du***

*Nork familiak baino hobeto beste bati ulertu eta laguntzeko, kezkak, ardurak, itxaropenak eta bestelakoak partekatzen dituztenean? Ideia praktikara eramateko erraza dirudi, baina ez zen halakoa 2017ko irailean. Orduan, Gorabideko Familia Esku-hartzearen arduradunak zortzi emakumeri, adimen urritasuna duten pertsonen senideoi, deitu zigun bilera batera, elkartearen oinarriez hitz egiteko, familia-mugimenduan ondo finkatutako erroak baitira. Espiritu hura berreskuratu behar zen, familiok berriro ere motorraren eta bultzadaren parte ere izan gintezen.*

*Bilera gehiago egin ziren, etxeko lanak izan genituen, adituen laguntza ere izan genuen... eta bi ideiak indarra hartu zuten: "Familiok elkartea gurea balitz bezala sentitu behar dugu" eta proposamenek "familiatik familiara" izan behar dute. Proiektuak zirrara sorrarazten zigun; begiradetan, esku-hartzeetan, barreetan… igartzen zen, baita haserretan ere. Azken horiek, urriak baziren ere, zerbait okertzen zenean agertu egiten ziren.*

*Denboraldi batez, apur bat inozoak ginela, uste genuen gure lana ideiak sortzea izango litzatekeela, ondoren Gorabidek abian jar zitzan. Beraz, entzun genuenean taldeak sortzeko ordua zela eta ko-dinamizatzaileak gu geu izango ginela, harriduraz eta ikaraz begiratu genuen. Gu geu talde bateko liderrak izan? Ez gara gai… Familiak besterik ez gara! Eta une horretan ulertu genuen zergatik geunden bertan. Oso argi esan ziguten hasieratik: "Familietatik familietara". Motorra ginen eta martxan jarri behar ginen.*



*Hasierako beldur txikiagatik ere, inork ez du proiektua utzi eta lan-taldetxoak sortu ditugu familietatik familientzako sei proposamen abian jartzeko:*

1. *Elkarri laguntzeko beste talde bat sortu, adimen urritasun arina edo mugako adimena duten pertsonen senideen artean.*
2. *Familia berriak hartzeko senide-taldea sortu, sentimenduak eta arazoak partekatzeak dakarren berotasunetik.*
3. *Anai-arreben eta euren bikotekideen eta adimen urritasuna duten senideen arteko topaketa antolatu.*
4. *Familia osoarentzako jokoen tailerra, senideen arteko harremanak indartu eta bultzatzeko.*
5. *Urtean bi ekintza gutxienez familian egiteko; zerbait oso erraza, esaterako, askaria, solasaldia edo bestelakoa partekatu.*
6. *Hitzaldi, tailer eta horrelakoen eskaintza birformulatu, familien benetako interesetatik abiatuta.*

*Proiektuaren garai honetan, ilusioak gorenean jarrita, hasierako beldurrak ia desagertu dira. Inork ez du galdetzen taldea dinamizatzeko gai izango den. Argi dugu gu geu izan behar garela, adimen urritasuna duten pertsonen senideak, eta antzeko egoeretan dauden beste familiei laguntzeko gaude. Familiatik familiara, Gorabiden familia bakoitza kontuan hartzen delako.*

información bbk SAIOA GORABIDE informazioa

# Un servicio para todas las familias

**¿Conoces los servicios que te ofrece nuestro Servicio BBK SAIOA GORABIDE**

# Familia guztientzako zerbitzu bat

**Ezagutzen dituzu BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzuak eskaintzen dizkizun zerbitzuak?**



Nuestro Servicio BBK SAIOA GORABIDE lo forman 5 trabajadoras sociales, un psicólogo, dos psicólogas, un psiquiatra, una administrativa y un director.

BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua 5 gizarte-langilek, 3 psikologok, psikiatra batek, administrari batek eta zuzendari batek osatzen dute.

**Acogida y apoyo inicial:** Primer contacto con la persona con discapacidad intelectual y su familia para entrar a formar parte de Gorabide, y realización del diagnóstico de discapacidad y del diagnóstico social.

**Información permanente:** Sobre recursos, servicios, prestaciones, pensiones, ayudas o legislaciones existentes, generales y especializadas (dependencia, discapacidad, precios públicos, ISNA, familia numerosa, modificación de la capacidad legal y tutela, tramitación de justicia gratuita, etc).

**Orientación personalizada:** Adaptada a los deseos, modo de vida y expectativas familiares y personales. Se realiza mediante entrevistas y encuentros en aquellos entornos que permitan un mayor conocimiento de la persona con discapacidad y su familia.

**Apoyo, seguimiento y acompañamiento:** A lo largo de todo el ciclo vital, prestando especial atención a momentos de transición, situaciones urgentes (atención residencial temporal, situaciones de desprotección y riesgo, etc) o trámite de procedimientos administrativos necesarios para acceder a cualquier tipo de servicios y recursos públicos o privados.

**Servicio de Orientación Infanto-juvenil:** Destinado a menores de 16 años, con el objetivo de ser un referente multidisciplinar para las familias, a donde acudir de manera periódica y poder revisar el desarrollo de su familiar y los apoyos que recibe.

**Harrera eta hasierako laguntza:** Lehen kontaktua adimen urritasuna duen pertsonarekin eta haren familiarekin Gorabiden sartzeko, eta desgaitasunaren diagnostikoa eta diagnostiko soziala egin.

**Informazio etengabea:** Baliabideak, zerbitzuak, prestazioak, pentsioak, dauden laguntzak edo legediak, orokorrak eta espezializatuak (mendekotasuna, desgaitasuna, prezio publikoak, ISNA, familia ugaria, lege-gaitasuna eta tutoretza aldatu, doako justizia tramitatu, etab.).

**Orientazio pertsonalizatua:** Desio, bizimodu eta itxaropen familiar eta pertsonaletara egokituta. Elkarrizketa eta topaketen bitartez egiten da, mendekotasuna duen pertsona eta haren familia hobeto ezagutzeko.

**Babesa, jarraipena eta laguntza:** Bizitza-ziklo osoan, arreta berezia jarrita trantsizio-momentuetan, larrialdietan (aldi baterako egoitzako arreta, babesgabetasun eta arrisku egoerak, etab.) edo beharrezko administrazio-prozeduren tramiteetan, zerbitzu eta baliabide publiko edo pribatuetara sartzeko.

**Haur-gazteentzako Orientazio zerbitzua:** 16 urtetik beherakoei zuzenduta, familientzat diziplina anitzeko erreferentea izan dadin, aldiro joan daitezen eta senidearen garapena eta jasotzen dituen laguntzak ikus ditzaten.

**Servicio BBK SAIOA GORABIDE Zerbitzua**
**Tel. 94 453 90 86**

# La Asamblea de Socias y Socios aprueba la gestión de 2017 y la planificación de 2018

***También establece en 75 euros la cuota de pertenencia a Gorabide de cara al año 2019***

**La Asamblea General de Socias y Socios de Gorabide aprobó la gestión y los resultados financieros del ejercicio 2017, así como los planes y el presupuesto de 2018, y estableció una cuota de 75 euros para el año 2019.**




Con su voto, las personas que son socias de Gorabide refrendaron la gestión del ejercicio pasado, con un 98,57% de los planes realizados o en curso y un 87,76% de los principales indicadores de actividad con el objetivo cumplido o superado. En el plano económico, se redujo el déficit aprobado en la asamblea anterior, desde 825.267,92 hasta 475.473,76 euros, que la asociación ha podido hacer frente gracias a los fondos propios generados por resultados positivos de ejercidos anteriores.

### Presupuesto de 2018

En lo que respecta al presupuesto de 2018, también aprobado, prevé gastos de 32.991.974,51 euros, de los que 23.791.098,50 euros se destinan a personal, frente a unos ingresos de 32.505.194 euros, lo que supone una nueva previsión de déficit que la Asamblea de Socias y Socios exhortó a reducir.

LECTURA FÁCIL

Las socias y los socios de Gorabide votaron a favor de las cosas que se hicieron el año pasado y de las cosas que se han planificado para este año. También aprobaron las cuentas del año 2017 y el presupuesto para 2018. Y pusieron una cuota de 75 euros para 2019.

# Bazkideen Batzarrak 2017ko kudeaketa eta 2018ko plangintza onartu ditu

***Halaber, 2019. urterako 75 euroko kuota ezarri du Gorabideko kide izateko***

**Gorabideko Bazkideen Batzar Nagusiak 2017ko kudeaketa eta finantza-emaitzak onartu zituen, baita 2018ko planak eta aurrekontua ere, eta 2019. urterako 75 euroko kuota ezarri zuen.**

Beren botoekin, Gorabideko bazkideek iazko kudeaketa berretsi zuten, planen %98,57 burututa edo gauzatzen ari direla, eta jardueraren adierazle nagusien helburuen %87,76 burututa edo gaindituta. Ekonomia arloan, aurreko batzarrean onartutako defizita murriztu egin zen, 825.267,92 eurotatik 475.473,76 eurotara, eta elkarteak aurre egin dio aurreko urteetako emaitza positiboek sortutako fondo propioei esker.

IRAKURKETA ERRAZA

Gorabideko bazkideek iaz egindako gauzen alde eta urte honetarako planifikatutako gauzen alde bozkatu zuten. Halaber, 2017. urteko kontuak eta 2018rako aurrekontua onartu zituzten, eta 75 euroko kuota jarri zuten 2019rako.

### 2018ko aurrekontua

Onartutako 2018ko aurrekontuari dagokionez, 32.991.974,51 euroko gastuak aurreikusten ditu. Horietatik 23.791.098,50 euro langileei bideratuko zaizkie, eta diru-sarrerak 32.505.194 eurokoak izango dira. Ondorioz, defizitaren beste aurreikuspen bat dago, eta Bazkideen Batzarrak hura murrizteko aholkatu zuen.

# Finaliza otra temporada llena de ilusión

***Nuestros equipos de fútbol sala adaptado vuelven a destacar por su juego y su implicación***

**Servicio de Tiempo Libre**

Nuestros tres equipos de la Liga Vasca de Fútbol Sala Adaptado jugarán el 10 de junio en el Polideportivo de Bilbao Kirolak en Deusto los últimos partidos de la temporada. Ha sido un buen curso en cuanto a resultados: Gorabide C ha quedado en el segundo puesto de su categoría y Gorabide A y B, dependiendo de los resultados de esos últimos partidos, pueden quedar en segunda o tercera posición en sus categorías.

Pero estas líneas no son para hablar de resultados, o al menos no únicamente, sino más bien para destacar el esfuerzo e ilusión de las personas usuarias de nuestro Servicio de Tiempo Libre que forman parte de esos tres equipos. Entrenamiento tras entrenamiento y partido a partido, a estos grupos de futbolistas les ha sobrado motivación, ganas, trabajo y tesón; valores todos ellos tan importantes o más que los puntos obtenidos en la clasificación.

Así que, y este es un mensaje para cada futbolista de nuestros equipos, enhorabuena por los resultados obtenidos, pero sobre todo por haber derrochado ilusión. Y recordad que nos debemos valorar no sólo por las buenas jugadas, sino también y sobre todo por el buen ambiente, compañerismo y 'fair play' con el equipo rival. Y no podemos finalizar este artículo sin poner en valor a las personas voluntarias que cada semana han trabajado para que este proyecto de futbol sea posible. ¡Zorionak a vosotras también!


Gorabide A


Gorabide B


Gorabide C


Entrenatzaileak

# Ilusioz beteriko beste denboraldi bat bukatu da

***Egokitutako areto-futboleko gure taldeak berriro ere nabarmendu dira beren jokoagatik eta inplikazioagatik***

**Astialdiako Zerbiztua**

Egokitutako Areto Futboleko Euskal Ligako gure hiru taldeek ekainaren 10ean jokatuko dituzte Deustuko Bilbao Kirolak Kiroldegian denboraldiko azken partidak. Ikasturte ona izan da emaitzei dagokienez: Gorabide C kategoriako bigarren postuan geratu da, eta Gorabide A eta B, azken partida horien emaitzen arabera, bigarren edo hirugarren lekuan gera daitezke beren kategorietan.

Alabaina, lerro hauek ez dira emaitzez hitz egiteko, edo behintzat ez horretarako bakarrik, baizik eta gure Astialdiako Zerbitzuan hiru talde horietan ari diren erabiltzaileen esfortzua eta ilusioa azpimarratzeko. Entrenamenduz entrenamendu eta partidaz partida, futbol-jokalari horiek motibazioz, gogoz, lanez eta adorez gainezka egon dira, eta balio horiek guztiak sailkapenean lortutako puntuak baino garrantzitsuagoak dira.

Beraz, eta hauxe gure taldeetako jokalari bakoitzarentzako mezua da, zorionak lortutako emaitzengatik, eta batez ere ilusioa barra-barra izateagatik. Eta gogoratu, ez dira bakarrik jokaldi onak baloratzekoak, baita giro ona, adiskidetasuna eta aurkariekiko joko garbia ere. Ezin dugu artikulu hau bukatu boluntarioen lana balioan jarri gabe, futbol proiektu hau posiblea izan dadin astero-astero jardun dutelako. Zorionak zuei ere!



# El segundo Día del Tercer Sector Social de Euskadi visibiliza la colaboración público-social

La segunda edición del Día del Tercer Sector Social de Euskadi, organizada por Sareen Sarea en el Kursaal de Donostia, fue un acto en el que se visibilizó la colaboración entre entidades públicas y sociales que, en palabras del lehendakari Iñigo Urkullu, *"consolida los pilares de una sociedad más justa, cuyo eje central es la persona"*. *"Contamos con una red asociativa que llega donde la Administración no llega. Conformamos un sistema de protección, calidad de vida e igualdad de oportunidades que es referente en el mundo"*, añadió.

Por su parte, el presidente de Sareen Sarea, Pablo González, aludió a las *"nuevas necesidades que requerirán de nuevas respuestas"* y a la confianza del tercer sector social *"en las personas comprometidas", como* Sabin Ipiña, que recibió el Premio Sareen Sarea 2018, a título póstumo, por una vida dedicada a mejorar la calidad de vida de las personas.

# Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Egunak laguntza publiko-soziala bistaratzen du

Sareen Sareak Donostiako Kursaalean antolatu du Euskadiko Hirugarren Sektore Sozialeko Egunaren bigarren edizioa. Ekitaldian erakunde publikoen eta sozialen arteko lankidetza bistaratu zen. Iñigo Urkullu lehendakariaren esanetan, *"gizarte bidezkoago baten zutabeak finkatzen ditu, eta erdiko ardatza pertsona bera da"*. *"Gure elkartesarea Administrazioa heltzen ez den lekuetara iristen da. Babeserako, bizi-kalitaterako eta aukeren berdintasunerako dugun sistema erreferentea da mundu osoan"*, gehitu zuen.

Bestalde, Sareen Sareko presidente Pablo Gonzálezek *"erantzun berriak beharko dituzten behar berriak"* nabarmendu zituen, baita hirugarren sektore sozialak "*pertsona konprometituengan"* duen konfiantza ere, Sabin Ipiñarengan besteak beste; hain zuzen ere, jaso zuen Sareen Sarea 2018 Saria, hil osteko gisa, pertsonen bizi-kalitatea hobetzera bideratutako bizitzagatik.

## LABURRAK
## BREVES

### Conchi Basabe recibe uno de los Premios Solidarios Once Euskadi

Conchi Basabe, usuaria de Gorabide y voluntaria de nuestro Servicio de Tiempo Libre desde hace 35 años, ha ganado uno de los Premios Solidarios Once Euskadi por su trayectoria y dedicación.

### Conchi Basabek Once Euskadi Solidarioen Sarietako bat jaso du

Conchi Basabek, Gorabideko erabiltzaile eta 35 urtez gure Astialdiko Zerbitzuko boluntarioak, Once Euskadi Solidarioen Sarietako bat irabazi du bere ibilbide eta dedikazioagatik.

### Club Diario Bilbao, abierto en julio

Como es habitual, el Club Diario de Bilbao permanecerá abierto todo el mes de julio, de lunes a viernes, de 17:30 a 21:00. Las personas usuarias mayores de 18 años interesadas en hacer uso de este servicio, pueden apuntarse, durante el mes de junio, llamando al teléfono 94 443 12 10.

### Bilbo Eguneroko Kluba uztailean

Ohikoa denez, Bilboko Eguneroko Kluba zabalik egongo da uztaila osoan, astelehenetik ostiralera, 17:30etak 21:00etara. Adimen desgaitasuna duten 18 urtetik gorakoek zerbitzu hori erabili nahi badute, izena eman dezakete ekainean, telefono honetara deituta: 94 443 12 10.

GORABIDE

JUNIO DE 2018 | Nº 271 Zk | 2018KO EKAINA

Gorabide es una asociación sin ánimo de lucro orientada a contribuir a que las personas con discapacidad intelectual de Bizkaia y sus familias puedan desarrollar sus aspiraciones vitales, ofreciendo apoyos e innovación en las respuestas, desde una perspectiva ética y promoviendo su inclusión en una sociedad más justa y solidaria. Entidad promotora de Lantegi Batuak (1983) y de Futubide (1991).

Gorabide irabazi-asmorik gabeko elkartea da, Bizkaiko adimen desgaitasuna duten pertsonei eta haien familiei bizitzako asmoak garatzen laguntzen diena, horretarako laguntza eta berrikuntza eskaintzen die ikuspegi etikotik eta haien inklusioa sustatzen du gizarte bidezkoago eta solidarioago batean. Lantegi Batuaken (1983) eta Futubideren (1991) erakunde sustatzailea.

## ARGAZKIA LA FOTO



**Personas usuarias de nuestra Residencia Ibarreta-Zuloko y de nuestro Servicio de Tiempo Libre asistieron al último partido de Liga en San Mamés, invitadas a un palco por la Diputación Foral de Bizkaia.**

**Gure Ibarreta-Zuloko Egoitzako eta Astialdiko Zerbitzuko erabiltzaileak San Mamesera joan ziren Ligako azken partida ikustera palko batean, Bizkaiko Foru Aldundiak gonbidatuta.**



## agenda ekaina junio

más en... www.gorabide.com/agenda ...gehiago

### AGRUPACIONES

**Busturialdea (Encuentro):** Miércoles 13, a las 18:00.
Kultur Etxea. Foru Plaza (Gernika)

**Deusto-San Ignacio (Junta):** Martes 5, a las 19:00.
Club Solas Etxe. Luzarra nº 24 (Deusto).

**Ermua (Junta):** Lunes 4, a las 19:30.
Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Comisión):** Martes 5, a las 20:00.
Atxurizubi nº 12 (Mungia).

**Santurtzi (Comisión):** Miércoles 27, a las 19:00.
Sabino Arana nº 20-22 (Santurtzi).

### ELKARTEAK

**Busturialdea (Topaketa):** Asteazkena 13, 18:00etan.
Kultur Etxea. Foru Plaza (Gernika)

**Deusto-San Ignacio (Batzordea):** Asteartea 5, 19:00etan.
Club Solas Etxe. Luzarra, 24 (Deustu).

**Ermua (Batzordea):** Astelehena 4, 19:30etan.
Aldapa nº2 , bajo A (Ermua).

**Mungialdea (Komisio):** Asteartea 5, 20:00etan.
Atxurizubi, 12 (Mungia).

**Santurtzi (Komisio):** Asteazkena 27, 19:00etan.
Sabino Arana, 20-22 (Santurtzi).

### AUTOGESTORES

c/ Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao)

**Los Nuevos:** Lunes 4, a las 18:00.

**Jóvenes:** Martes 5, a las 18:00.

**Los Veteranos:** Miércoles 6, a las 18:00

### AUTOGESTOREAK

Poza Lizentziatua kalea, 14 - 2. (Bilbo)

**Los Nuevos:** Astelehena 4, 18:00etan.

**Gazteak:** Asteartea 5, 18:00etan.

**Los Veteranos:** Asteazkena 6, 18:00etan.

### FORMACIÓN FAMILIAR

c/ Licenciado Poza nº 14, 2º (Bilbao)

**Familias de escolares:** Jueves 3, a las 18:00.

**Familias de jóvenes:** Lunes 7, a las 18:00.

**Familias de personas adultas:** Jueves 10, a las 18:00.

**NUEVO GRUPO**

**Familias de personas con discapacidad intelectual ligera o inteligencia límite:** Jueves 28, a las 18:00.

### FAMILIEN PRESTAKUNTZA

Poza Lizentziatua kalea, 14 - 2. (Bilbo)

**Eskola-umeetako familiak:** Osteguna 3, 18:00etan.

**Gazteetako familiak:** Astelehena 7, 18:00etan.

**Helduetako familiak:** Osteguna 10, 18:00etan.

**TALDE BERRIA**

**Adimen desgaitasuna arina edo adimen limite duten pertsonetako familiak:** Osteguna 28, a las 18:00.

D.L./L.G. BI-394-2014